



BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Hasiera batean, ECOFROLADAK gure denda fisikoan salduko ditugu. Arrakasta izango balu Espainia osora zabalduko ginateke. ECOFROLADAK bere web orria izango du, non bezeroek informazioa eskuratu eta enpresarekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute. Beraz, kanal mota zuzena erabiliko dugu gure produktuaren salmentarako.

Gaur egun, ofizinan edo etxetik kanpo bazkaldu behar izaten duten pertsonak geroz eta gehiago dira, eta ECOFROLADA perfil hau betetzen dutenentzat alternatibarik onena da. Gainera, ez du zailtasunik entsalada jateko prest egongo delako, konsumitzaileek egin beharko duten bakarra beirazko ontzi batean datorren nahi adina ongailu, olio eta ozpina, botatzea da.

Merkatuaren segmentazioan aipatu dugun bezala, gure bezeroak Zuatzu eta Miramon poligonoetan kokatzen ditugu. Hortaz, saiatuko gara bertan kokatzen diren enprekin kontaktuan jartzen han meeting-ak egiteko. Gure produktua gustatzen bazaie, egunero hara eramango dugu bazkal orduan langileek eros ditzaten.

Gurekin kontaktuan jartzeko web orrian korreoa eta telefono zenbakia nahi duenak eskuragarri izango du. Bertan informazio orokorra zein galdera pertsonalenzako atal bat ere aurki ditzakegu, bezeroek dituzten kezka guztiak konpontzeko helburuarekin, alegia.

